



## Euskadiko Parke Teknologikoaren Hernaniko eraikin nagusi berria goi-mailako teknologiko enpresa eta proiektu estrategikoak erakartzeko gune bilakatuko da

---

- ‘Ellen MacArthur’ eraikin berria irizpide ekojasangarrien arabera diseinatutako instalazio berezi bat izango da; 2026aren amaierarako bukatuta egongo da eta Gipuzkoako Parke Teknologikoan dagoen okupazio eta eskari handiari erantzungo dio
- Euskadiko Parke Teknologikoaren jabetzako lehen eraikina da Hernaniko Campusean, Galarretan, eta 2.300 metro karratu baino gehiago ditu inkubazio-fasea amaitu duten enpresa-proiektuak hartzeko
- “Hernaniko eraikin baten lehen harria baino askoz gehiago da hau. Apustu arrakastatsu baten jarraipena da, etengabe berritu behar dugun apustu batena”, nabarmendu du Imanol Pradales lehendakariak

Euskadiko Parke Teknologikoak Hernaniko Campusaren jabetzako lehen eraikinaren lehen harria jartzeko ekitaldia egin du gaur goizean, **Imanol Pradales** lehendakaria buru zela. Galarretan kokatuta, eraikin nagusi berri honek Ellen MacArthur (Derbyshire, Ingalaterra, 1976) ekonomia zirkularraren aitzindaria izandakoaren izena izango du. Instalazio hauek —ekodiseinuko, jasangarritasuneko eta efizientzia energetikoko irizpideen arabera diseinatuta daude— hub bihurtuko dira ‘scale up’ fasean dauden enpresentzat, inkubazio-fasea amaitzen dutenean.

Lehendakariarekin batera, honako hauek izan dira, besteak beste: **Bakartxo Tejeria** Eusko Legebiltzarreko presidentea, **Eider Mendoza** Gipuzkoako ahaldun nagusia, **Mikel Jauregi** Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua, **Xabier Lertxundi** Hernaniko alkatea eta **Jaione Ganzarain** Euskadiko Parke Teknologikoko presidentea. Horiek guztiak bat etorri dira Euskadiko Parke Teknologikoak Gipuzkoan duen espazio-eskari gero eta handiagoari erantzuteko instalazio hauek duten garrantzia nabarmentzean.

“Parke teknologikoen aldeko apustuak islatzen du amets egiteko eta eraikitzeke gai izan ginen herria, duela lau hamarkada, lehiakortasuna berreskuratzearen gure ekonomia modernizatzeko premia handia zegoenean”, azpimarratu du lehendakariak. “Ziurgabetasun-garai hauetan bide beretik joan nahi dugu: Herri aurreratua eta bizi-kalitatea duena. Industria berritzailea duena, pertsona guztientzat aukerak, kalitatezko enplegua eta ongizatea sortuko dituen industria. Hortaz, Hernaniko eraikin baten lehen harria baino askoz gehiago da hau. Apustu arrakastatsu baten jarraipena da, etengabe berritu behar duguna”.

Ellen MacArthur eraikina 2026aren amaierarako bukatuta egongo dela aurreikusten da, eta 10.000 m<sup>2</sup>-ko azalera izango du, Parke Teknologikoak enpresa teknologikoen eskura jarriko duena. Horietatik 2.300 'scale up' fasean dauden enpresei zuzenduta egongo dira, instalazio horiek hub bihur daitezen inkubazio-fasea igaro duten eta merkatuan hazkunde azkarra izaten ari diren enpresa-proiektu guztientzat.

Hernaniko Campusera sartzeko biribilgune nagusiaren ondoan dago eraikin nagusi berria, eta azpiegitura malgutzat konfiguratu da, enpresa bakoitzaren baldintza partikularretara egokitu daitekeen azpiegituratzat, hain zuzen. Barrualdean bulego pribatizagarriak, prototipo teknologikoetarako espazioa, RIS3 laborategiak eta zerbitzu osagarriak egongo dira, hala nola coworking-gela, erabilera anitzeko gelak eta Agora.

Bizikleta eta patinete elektrikoentzako aparkalekua ere izango du, baita ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak ere, Parke Teknologikoak mugikortasun jasangarriaren alde egiten duen apustuaren ildotik.

### **Azpiegitura berdea eta adimenduna**

Oin berriko eraikin honen eraikuntzarekin, Euskadiko Parke Teknologikoak indartu egiten du gizartearen oraina eta etorkizuna hobetzen lagunduko duten azpiegitura berde eta adimendunak sortzeko konpromisoa. Ildo horretatik, Ellen MacArthur eraikinak ingurumen-aldetik jasangarria den eraikin bati erantzuten dio, ekodiseinuan eta ekonomia zirkularrean oinarrituta eraikin bati.

Izan ere, eraikina egiteko, % 40 material birziklatu sartzea aurreikusten da, baita egonlekuei lotutako material ekologikoak eta beroak erabiltzea ere. Era berean, energia berriztagarrien aprobetxamendua erraztuko da, eta honako hauek barne hartuko dira: errendimendu handiko sorkuntza termikoa, instalazioen digitalizazioa eta kontrola (BMak), kontsumoen eta energia-iturrien optimizazioa eta euri-uraren eta ur grisen berreskurapena.

Hernaniko eraikin nagusi berria gehitzea beste mugarri bat da Gipuzkoako Parke Teknologikoarentzat. Gaur egun, campus horretan COUTH enpresa dago, duela urtebete baino gutxiago bere instalazioak inauguratu zituena, baita Mondragon Unibertsitatea, IKERLAN eta Orona Fundazioa ere. Era berean, urrats garrantzitsua da Gipuzkoan espazio berrien eskariari erantzuteko, egungo eraikinen okupazio handiaren aurrean —ia % 100ekoa da—. Eraikin berria egiteko estimatutako kostua 18,2 milioi eurokoa da.

## El nuevo edificio central del Parque Tecnológico de Euskadi en Hernani se configura como un polo para atraer empresas y proyectos estratégicos de alta tecnología

---

- El nuevo edificio ‘Ellen MacArthur’ será una instalación singular diseñada bajo criterios ecosostenibles que estará finalizada para finales de 2026 y dará respuesta a la alta ocupación y demanda existente en el Parque Tecnológico en Gipuzkoa
- Se trata del primer edificio en propiedad del Parque Tecnológico de Euskadi en el Campus de Hernani, ubicado en Galarreta, con más de 2.300 metros cuadrados destinados a acoger proyectos empresariales que hayan culminado la fase de incubación
- “Esto es mucho más que la primera piedra de un edificio en Hernani. Es la continuidad de una apuesta que se ha demostrado exitosa, pero que debemos renovar de manera continuada”, ha destacado el Lehendakari Imanol Pradales

El Parque Tecnológico de Euskadi ha celebrado esta mañana el acto de colocación de la primera piedra de su primer edificio en propiedad del Campus Hernani, presidido por el Lehendakari **Imanol Pradales**. Ubicado en Galarreta, este nuevo edificio central llevará el nombre de quien fuera la pionera de la economía circular, Ellen MacArthur (Derbyshire, Inglaterra, 1976). Estas instalaciones -diseñadas bajo criterios de ecodiseño, sostenibilidad y eficiencia energética- se convertirán en un hub para las empresas en fase de 'scale up', una vez que finalicen su fase de incubación.

Junto al Lehendakari, al acto de primera piedra también han acudido la presidenta del Parlamento Vasco, **Bakartxo Tejeria**, la diputada general de Gipuzkoa, **Eider Mendoza**, así como el consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad del Gobierno Vasco, **Mikel Jauregi**, el alcalde de Hernani, **Xabier Lertxundi**, y la presidenta del Parque Tecnológico de Euskadi, **Jaione Ganzarain**, entre otros. Todos ellos han coincidido en destacar la importancia de estas instalaciones para dar respuesta a la creciente demanda de espacio en el Parque Tecnológico de Euskadi en Gipuzkoa.

"La apuesta por los parques tecnológicos refleja el País que fuimos capaces de soñar y construir en unos momentos muy difíciles, hace cuatro décadas, con una importante necesidad de modernizar nuestra economía para recuperar competitividad", ha subrayado el Lehendakari. "En estos tiempos de incertidumbre queremos transitar por el mismo camino. Un País avanzado y con calidad de vida. Con una industria innovadora que genere oportunidades, empleo de calidad y bienestar para todas las personas. Por tanto, esto es mucho más que la primera piedra de un edificio en Hernani. Es la continuidad de una apuesta que se ha demostrado exitosa, pero que debemos renovar de manera continuada".

El edificio Ellen MacArthur, que previsiblemente estará finalizado para finales de 2026, tendrá una superficie de 10.000 m<sup>2</sup> que el Parque Tecnológico pondrá a disposición de empresas tecnológicas. De ellos, 2.300 estarán dedicados a empresas en fase de 'scale up', con la intención de que estas instalaciones se conviertan en un hub para todos los proyectos empresariales que han pasado la fase de incubación y están experimentando un rápido crecimiento en el mercado.

Ubicado junto a la rotonda principal de acceso al Campus de Hernani, el nuevo edificio central se configura como una infraestructura flexible y adaptable a las condiciones particulares de cada empresa. En el interior habrá oficinas privatizables, espacio para prototipos tecnológicos, laboratorios RIS3, y servicios complementarios como sala de coworking, salas polivalentes y Ágora.

También dispondrá de aparcamiento para bicicletas y patinetes eléctricos, así como de puntos de recarga para vehículos eléctricos, en línea con la apuesta del Parque Tecnológico por la movilidad sostenible.

### **Infraestructura verde e inteligente**

Con la construcción de este edificio de nueva planta, el Parque Tecnológico de Euskadi refuerza su compromiso con la creación de infraestructuras verdes e inteligentes que contribuyan a mejorar el presente y el futuro de la sociedad. En este sentido, el Ellen MacArthur responde a una edificación ambientalmente sostenible, basada en el ecodiseño y la economía circular.

De hecho, para su construcción se prevé la incorporación de un 40% de materiales reciclados, así como el uso de materiales ecológicos y cálidos asociados a los espacios de estancia. Asimismo, se facilitará el aprovechamiento de energías renovables, contemplando la generación térmica de alto rendimiento, la digitalización y el control de instalaciones (BMs), la optimización de consumos y fuentes energéticas, y la recuperación de agua de lluvia y de aguas grises.

La incorporación del nuevo edificio central de Hernani supone un nuevo hito para el Parque Tecnológico en Gipuzkoa. Actualmente este campus cuenta con la presencia de la empresa COUTH, que inauguró sus instalaciones hace poco menos de un año, así como de Mondragon Unibertsitatea, IKERLAN y Fundación Orona. Asimismo, es un paso importante para dar respuesta a la demanda de nuevos espacios en Gipuzkoa ante la alta ocupación existente –cercana al 100%- de sus actuales edificios. El coste estimado para la construcción del nuevo edificio es de 18,2 millones de euros.

**Hernani, 17 de febrero de 2025**